

JUUL 2026
LIBURU eta ILUSTRATZAILE
BOZKATUENAK



1KASTOLAK


Muxua

Egilea: Eoin McLaughlin

Marrazkilaria: Polly Dunbar

Argitaletxea: Pamiela

Krokodiloa eta Tigrea lozorroan daude, eta biek behar dute norbaitek lotarako musu bat ematea. Baina inork ez die lagundu nahi... Gurasoek, umeak ametsen mundura eramateko beti prest, lagundu egingo diete. Zer gertatuko ote da liburuaren erdira iritsitakoan?



Arrats zapo bat

Egilea: Maite Mutuberria

Argitaletxea: Pamiela

«Kontzzzo, bai azzzpertuta dagoela zzzapoa», pentsatu zuen eltxoak. «Zzzer egin nezzzake hura dizzztraitzzzeko...». Eltxoaren ostean, barraskiloa, inurria, armiarma, burrunzia eta ehunzangoa iritsi ziren. Baita matxinsaltoa ere, zeina ez zegoen prest segizio goxo haren parte izateko. «Arrats zapo bat» gero eta narrazio-erritmo handiagoz, irakurlea ezusteko amaiera arte gidatzen duen album ilustratu dibertigarri bat da.

Protagonistak modu berezian, joko fonikoak eta onomatopeiak erabiliz mintzo dira, narrazioa lagunduz eta euren buruari nortasuna emanez.



Zizareren Mundua - Formak

Egilea: Esther Van Der Berg

Argitaletxea: Ttartalo

Zizare formaz inguratuta dago. Formak aurkitu ditu leku guztietan: zirkuluak, laukiak, hirukiak... bai eta izar bat ere! Gainera, Zizare gai da bere gorputz luzearekin formak imitatzen. Ikusten al dituzu forma guztiak?



B KATEGORIA – Lehen Hezkuntza 1. eta 2. maila

Lehen Maila 1. eta 2. urtea

Itzal Itzela

Egilea: Leire Bilbao

Marrazkilaria: Yolanda Mosquera

Argitaletxea: Ikaselkar

Hondartzara joaten denean, hondar epelaren zurrumurrua sentitzea gustatzen zaio Pauleri. Toallan etzan eta kalatxoriei begiratzea. Harean ezabatuko diren irudiak marraztea. Hondar azpian zerbait mugitzen sumatu duen arte. Geldi geratu da, harrituta, zer egin ez dakiela. Amonaren esaeraz gogoratu da orduan: beldurrari aurre.



B KATEGORIA – Lehen Hezkuntza 1. eta 2. maila


Lehen Maila 1. eta 2. urtea

Nahi nuke

Egilea: Olivier Tallec

Argitaletxea: Txalaparta

Katagorria ez dago konforme katagorria izatearekin. Nahi luke beste zerbait izan, eta basoko animaliei begira dagoela, denak iruditzen zaizkio desiragarri: oreina izanen naiz? Hontza? Trikua? Saiatu ere saiatzen da beste bat izaten... Alferrik. Ez dut katagorria izan nahi. Gehiago ez! Egiaz, ez da inoren ametsa katagorria izatea. Iritzia eskatu balidate, beste zerbait aukeratu izanen nukeen.



B KATEGORIA – Lehen Hezkuntza 1. eta 2. maila

Lehen Maila 1. eta 2. urtea


Bisita

Egilea: Nuria Figueras

Marrazkilaria: Anna Font

Argitaletxea: Pamiela

Bakardadeaz eta isiltasunaz gozatzeraz animatzen duen album goxoa. Proposamen originala eta beharrezkoa zarataz eta soinu-kutsaduraz gainezka dagoen gizarte batean. Axerikumea bakarrik geratzen da gordelekuan, eta amak atea inori ez irekitzeko esan arren, bisita harrigarri bati sartzen uzten dio: Isiltasunari. Mesfidantzaz eta beldurrez betetako une batzuen ondoren, dantzarako musikarik behar ez dela ikasiko du gonbidatuarekin batera, nahikoa da bihotzaren taupadek markatzen duten erritmoei jarraitzea. Edo lasaitasuna eta sosegua behar direla geure pentsamenduak entzuteko. Irakurketa ugari dituen albuma. Testu arin eta samur baten eta kromatismo gainezka eta ñabarduraz beteriko proposamen grafiko baten arteko oreka nabarmentzen da.



C KATEGORIA – Lehen Hezkuntza 3. eta 4. maila

Lehen Maila 3. eta 4. urtea

Andrakas Jaunaren Bizarrak


Egilea: Unai Elgorriaga

Marrazkilaria: Alex Orbe

Argitaletxea: Elar

Andrakas jauna gizon bizarduna da: zazpi metroko bizarra dauka momentu honetan.

Kontua da leku batetik bestera joateko tramankuluren bat ikusten duen bakoitzean, bizarra metro bat hazten zaiola. Horregatik dauka etxean munduko artazi bildumarik handiena. Arazo berezi horrek bitxikeria ugari ekartzen dioenez, Andrakas jaunak ez du, ez, bizimodua erraza!



C KATEGORIA – Lehen Hezkuntza 3. eta 4. maila

Lehen Maila 3. eta 4. urtea

Onin eta Lapurren Haitzuloa

Egilea: Ibon Martin

Marrazkilaria: Emmanuel Montiel

Argitaletxea: Travel Bug

Ausartuko al zara globo batera igotzera, ur bizietan rafting egitera eta hilobi zahar batzuek gordetzen duten sekretua deskubritzera?

Urdaibai Bird Center behatokiko bisita lasaia erlojuaren aurkako lasterketa bilakatu zaigu. Pirinioetako azken hartzak bahitu egin dituzte, eta arrisku larrian daude. Ez badugu lehenbailehen esku hartzen, betiko desagertuko dira. Eragotzi egin behar dugu!

Ireki ongi begiak eta zatoz gurekin. Hartzek behar gaituzte.



C KATEGORIA – Lehen Hezkuntza 3. eta 4. maila

Lehen Maila 3. eta 4. urtea

Mati eta Zugarramurdiko misterioa

Egileak: Itxaso Martin

Marrazkilaria: Eider Eibar

Argitaletxea: Alai

Mati desastre xamarra da eta berandu iritsi da gelakideekin Zugarramurdira egin behar duen txangora. Eguna berezi xamarra ari da suertatzen goizean goizetik, eta etengabe ari zaizkio gauza arraroak gertatzen. Hazkura handia du ipurmasailetan eta atzetik jarraika duen hots bat entzuten du han-hor-hemen.

Halal eta Lur dira Matiren lagunak onenak eta haien laguntza beharko du zer gertatzen zaion deskubritzeko.

Bizitza zeharo aldatuko dien sekretu bat aurkituko dute, baina ezingo diote inori kontatu.

Eta zu... gai izango zara Matiren sekretua isilpean gordetzeko?



D KATEGORIA – Lehen Hezkuntza 5. eta 6. maila

Lehen Maila 5. urtea, Kolegio 6.a

Oraire

Egilea: Nerea Loiola

Argitaletxea: Erein

LIBURU HAU DESBERDINA DA

Istorio honetan gertatuko dena ZURE eskuetan dago.

ZU ZARA PROTAGONISTA!

Misterioak, arriskuak eta abenturak aurkituko dituzu. Erabakiak hartu beharko dituzu eta enigmak ebatzi. Zure adimena eta abileziak erabili beharko dituzu. Erabaki txar batek hondamendia eragin lezake... eta heriotza ere bai! Baina ez etsi. Edozein unetan egin dezakezu atzera eta beste aukera bat hautatu, zure istorioaren ibilbidea aldatu dezakezu.

Ezagutu ORAIRE eta murgildu zaitez abentura berri honetan. Agian mundu eta izaki berriak ezagutuko dituzu, agian gure munduaren etorkizuna zure esku egongo da, agian zure bizitzako abenturarik zirraragarriena izango da; edo agian ez, agian ezingo duzu inoiz etxera itzuli, agian indar ilunak gailenduko dira eta ezingo duzu gertatu zaizuna inoiz kontatu, agian dena amaituko da betiko. Ausartuko zara? Gertatzen dena gertatzen dela ere, ZORTE ON!



D KATEGORIA – Lehen Hezkuntza 5. eta 6. maila

Lehen Maila 5. urtea, Kolegio 6.a

Onin eta Surf Txapelketa

Egilea: Ibon Martin

Marrazkilaria: Emmanuel Montiel

Argitaletxea: Travel Bug

Surf-txapelketa arriskuan dago!

Jack Suzkotxima maltzurak plan bat dauka surf-festa handia amesgaizto bilaka dadin. Bere helburua lortzen badu, marrazoek surflariak jango dituzte... Lehenbailehen geldiarazi behar dugu! Kortsario zahar baten eta gure lehengusu Siraren laguntzaz, agian lortuko dugu hondamena saihestea.

Hartu zure taula eta zatoz abentura handi hau gurekin surfeatzera.



D KATEGORIA – Lehen Hezkuntza 5. eta 6. maila

Lehen Maila 5. urtea, Kolegio 6.a


Lima

Egilea: Miren Gorrotxategi
Argitaletxea: Elkar

Lima munduko neskarik zorigaiztokoena sentitzen da uda ondoren herrira itzultzen denean. Lehenengo sorpresa oporretan ezagututako Markos institutuan agertzen denean jasoko du. Hortik aurrera, ustekabekoak bata bestearen ondotik etorriko zaizkio: gurasoek haurra zela mendian aurkitu zutela jakingo du, Paulita tutorea desagertu egingo da eta Maia irakasle bitxiak hartuko du haren lekua.

Ba ote dute loturarik gertaera horiek guztiek? Markos, Brenda eta Egoitzek lagunduko diote misterio horiek guztiak argitzen.

Bada ordea Limak lagunei kontatu ezin dien sekretu izugarri bat? Irudimenez zipriztindutako istorio honek euskal mitologiaren ate-leihoak irekitzen dizkio irakurleari.



E KATEGORIA – Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

Kolegio 5., 4. eta 3.a, Lizeoko 2.a

Ezekiel Nora Ezean

Egilea: Jasone Osoro

Argitaletxea: Elkar

Ezekielek 15 urte ditu, lagunarte jator bat, neska-lagun moduko bat... Bizitza zoriontsu hori aldatu egingo da, ordea, inoiz ikusi ez duen aita bat-batean agertzen denean: ezagutu nahi luke, batetik, baina baita alde egin izana aurpegiratu ere. Horrez gain, beste hainbat arazo ditu mutilak: arrebarekin eta amarekin dituen eztabaidak, lagunetikiko gorabeherak, gustuko bi neskaren artean sentitzen dituen zalantzak.



E KATEGORIA – Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

Kolegio 5., 4. eta 3.a, Lizeoko 2.a

Murmur


Egilea: Ane Labaka

Marrazkilaria: Raquel Samitier

Argitaletxea: Erein

Artozkiri buruz dihardu irratiak, eta Iratiri zerbait printzatu zaio barruan. Gora eta gora egin du ur mailak, ustekabean. Arraildu dira urtegiaren hormak.

Memoria ariketa sentitu bat da honakoa; ama baten isiltasunaz eta alaba baten esanezinez osatua.



E KATEGORIA – Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza


Kolegio 5., 4. eta 3.a, Lizeoko 2.a

Touré - 612 euro

Egilea: Jon Arretxe

Argitaletxea: Erein

Bueltan da Touré, San Frantzisko auzoko igarle-ikertzaile berezia, bizilagun afrikarrentzat agurgarria, emakume zurientzat desiragarria eta polizientzat mespretxagarria. Bolada txar batetik pasatzen ari den momentuan ustezko anaia baten bisita jasoko du bere patera-pisuan, lekua egingo dio afrikar abegiaren izenean eta, erabaki horren erruz, arazo larriak sortuko zaizkio, lapurreta, droga-trafiko eta hilketa kasuetan belarrietaraino nahastuko dutenak.



Emmanuel Montiel



I KATEGORIA – Ilustratzaileak

Irati Eguren



I KATEGORIA – Ilustratzaileak

Eider Eibar



Joseba Larratxe “Josevisky”



Julen Ribas

